



Kapillan ekitaldi bat antolatzeko pausuak.

• 1 - Kontaktua.

Talderen batez kontaktatzea pentsatzen dena baino errazagoa da. Gehienek Interneten daukate kontakturako zenbaki edo e-mailen bat. Bilatu taldearen kontaktua sarean, eta deitu edo idatzi. Herrikoa bada, galdetu, seguru lagunen batek ezagutzen duela.

• 2 - Datak kontsultatu.

Zelako kontzertua gura duzun, asanbladara etorri behar da informatzera eta adostera. Martitzenero batzen gara Kapillan. Hilabete eta erdi aurretik minimo zehaztu. Arinagotik hasiz gero, hobeto. Ikasturteak aurrera egin ahala fetxak hartuta geratu eta ez da lekurik egoten kontzertu gehiago antolatzeko.

• 3 - Taldeei eskaintza.

Taldeei eskaintzen zaie: sarreratik ateratako dirua + afaria + edatekoa (pasa barik). Oraingoz, 5 euro kobratzen dugu gehienez. Bataz beste 60 pertsona etortzen dira, gutxi gorabehera. Beste eskaintzaren egin gura bada, edo taldeek beste zeozer eskatzen badute (prezinoa igo, lo egiteko lekua, beste zeozer), asanbladan hausnartu beharko da komeni den ala ez.

• 4 - Azpiegitura teknikoa: ekipoa eta lekua.

Batzuetan, talde batzuek ekipoaren ezaugarriak ezagutu gura izaten dituzte. Adibidez, banda handi batzuek mikro asko behar dituzte edo antzerki obraren batek espazioaren ezaugarri bereziak behar ditu. Guk gure mugak ditugu. Hau da daukaguna:

- Eszenarioa: 5 metro zabal eta 3,5 metro sakon; altueran, 2'2 metro.
- Mahaia: 12 pista (Eurorack-UB2442FX). Pista gehiago behar izatekotan, beste mahairen bat lortu behar da, daukanari edo bandari (baldin badauka).
- PA (altabozak): lau ditugu. Guztira, etapa bi PV1500 wateko potentzia.
- Monitorea: hiru.

Soinu teknikaria, batzuetan taldeagaz batera etortzen da, baina normalean ez.

Norbera arduratu behar da ekipoaz. Nuntxakun badaude hiru-lau pertsona apur bat kontrolatzen dutenak. Laguntza behar izatekotan, eskatu, ikusi eta ikasi.

Barra eta eskatza. Kañero bat eta nebera bat daukagu barran. 'Eskatzen', beste nebera bat (etxe guztietan egoten denaren antzekoa), harrikoa eta lababajillasa daukagu. Barril bat aldatzea oso erraza da. Ez badakizu, galdetu, ikusi eta ikasi.

• 5 - Erosketak.

Afaria tadearentzat eta antolatzaileentzat, eta edatekoa mundu osoarentzat.

Afariaren kasuan, guk honela egiten dugu: Belezan tortilla batzuk enkargatu eta entsalada bat prestatu.

Erosoa da, begetarianoa eta gozoa. Baina, afaria prestatzeko mila eta bat modu daude, norbere gustuen eta kozinatze borondatearen arabera.

Edaria, aurretik begiratu zer dagoen eta zer beharko den.

Garbitzekoak. Fijatu ea nahikoa produktu dagoen: lanbasa, sastar poltsak, xaboia...

Dirua. Diruzainarekin egin berba, kontuak argi eta garbi eroateko.

*diruagaz aukera bat baino gehiago egon ahal da. Errazena, dirua Nuntxakuk aurreratzea eta bueltan dirua oso-osorik bertan geratzea hurrengoetarako. Elkarteren batek proiekturen bat finantzatzeko zerbait antolatu gura badu, orduan berba egitea da dena, baina kontuan hartu % zatiren bat Kapillan geratu beharko litzatekeela, ekipo eta abarren mantenimendurako.

• 6 - Komunikazioa.

Oinarrizko informazio hau lortu: taldearen izena, nondik datozen, ze estilo jotzen duten eta irudi edo argazkiren bat (kalitate minimo bat), kartela egiteko.

Euskaraz egin behar da (Udalagaz daukagun hitzarmenean horrela onartu genuen). Kartelak egiteko plantillak daukagu, estilo bat, jendeak berehala identifikatzeko Kapillako zerbait dela. Diseinuan abilak ez bazarete, eskatu laguntza.

Kartelak pegatzeko, ez da ikastarorik behar; astebete aurretik egin, gutxienez.
Web, feisbuk eta tuitter, geure esku. Lagun artean zuk ere zabaldu ahal duzu.

• **7 - Egunean bertan.**

Aurretik jendea lotu eta ardurak banatu: taldeagaz kontaktuan egon, soinu probak egin (eta gero teknikari aritu), afaria ekarri, barran egon, sarrerak kobratu, eta amaitzean dena ahal den txukunen utzi... Zenbat eta lagun gehiago, denontzat lan gutxiago. *Mozkortzeko asmoa baduzu, ez hartu arduraren handiegirik, eta ez molestatu lanean daudenak.

• **8 - Garbitasuna.**

Kontzertu handi baten osteko erresakak dolorosoak dira, baina, garbitasuna 24 orduren barruan egitea komeni da: ekintza gehiago egiten dira aste barruan ere, eta besteei putadarik ez utzi. Lanbasa pasatzeak, gainera, alkohola izerditan lurruntzeko eta arima purifikatzeko balio du (gezurra, baina ez dago beste erremediorik lanbasa pasatzea baino). Lababajillasa erabili basoak garbitzeko.

Listo, antolatu duzu kontzertu bat.